

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Udal txartela emateagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren behin betiko onarpena

Jendaurreko epean udal txartela emateagatiko tasa arautzen duen ordenantza ezartzeko erabakiaren aurka erreklamaziorik aurkeztu ez denez (2024ko azaroaren 4ko ALHAO, 125 zk.), ordenantza hori behin betiko onartu da, eta ondoren ordenantza osoa argitaratuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako:

OINARRIA ETA IZAERA

1. artikulua

Iruña Okako Udalak, toki-ogasunak arautzen dituen foru-arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren arabera, "udal-txartela igortzeagatiko tasa" ezartzen du, ordenantza honen arabera arautuko dena.

ZERGAPEKO EGITATEA

2. artikulua

Herritarren UdalTxartela (TMC) Iruña Okako Udalak ematen duen txartela da, udal-zerbitzu eta -izapide jakin batzuetan txartelaren titularra identifikatzeko.

Tasa honen helburua da hura emateko behar diren administrazio-zerbitzuak ematea.

SUBJEKTU PASIBOA

3. artikulua

Subjektu pasiboak, zergadunak, Iruña Okan erroldatutako pertsona fisiko egoiliarak dira, udal txartela eskatzen dutenak.

ZERGA KUOTA

4. artikulua

Txartelaren lehen jaulkipena doakoa izango da, eta erabilera pertsonala izango du soilik, eta ezin izango da transferitu.

Herritarren UdalTxartela (TMC) galdu edo lapurtuz gero, haren titularrak baja eman beharko dio herritarrei arreta emateko edozein bulegotan.

Ondoren, nahi izanez gero, beste txartel bat eskuratzeko izapideak egin ahal izango dira, horretarako ezarritako baldintzetan. Txartelaren galera gertatuz gero, 5,30 euro ordaindu beharko dira, eta 1,10 euro gehituko dira, hurrenez hurren, aipatutako arrazoia dela-eta txartela eskuratzeko izapideak egiten diren bakoitzean."

SORTZAPENA

5. artikulua

Tasa sortzen da eta zergapeko egitatea den udal-jarduera hasten denean ordaintzeko bete-beharra sortzen da.

LIKIDAZIOA ETA SARRERA

6. artikulua

Kuota ordaintzea dakarrenean, kopia entregatzen den unean jaulkiko da.

Xedapen gehigarria

Ordenantza fiskal honetako manuek, arrazoi sistematikoengatik, indarrean dagoen legeriaren eta beste garapen-arau batzuen alderdiak erreproduzitzen badituzte, ulertuko da automatikoki aldatzen eta/edo ordeztzen direla, sorrarazten dituzten lege- eta erregelamendu-manuen aldaketa errepikatzen den unean.

Azken xedapena

Ordenantza fiskal hau behin betiko onarpenerako erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte iraungo du.

Langraiz Okan, 2024ko abenduaren 19an

Alkate-udalburua

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ